A 1583



Intxaurrondo

# Artzak! Ortzeok eta laurogeigarren urteurrena!

**Aitor Navarro** |Tfnoa.: 288919|

**Artzak-Ortzeok elkartea 1921ean sortu zen, datorren urtean, beraz, 80 urte beteko dira elkartea jaio zenetik. Elkarteak 180 bazkide ditu gaur egun, eta guztiek itxaropentsu hasi dute ditxosozko 2000 urtea.**

Elkarteak harreman estua du Larrotxene kultur etxea eta Aitonene etxearekin, eta baita ondo-ondoan duten Zulo-Zahar tabernarekin ere. Harreman estu horren emaitza dira elkarrekin antolatu ohi dituzten ekitaldi ugariak.

Ipurterre samarrak dira Artzak Ortzeok elkarteko partaideak, horren lekuko, elkartea sortu zenetik hona antolatutako ekintzak. Zerrenda amaigabea da: tute eta mus txapelketa, garai batean bertan sortutako txirrindulari taldea... baina ezer nabarmentzekotan, gastronomia eta danborrada aipatu behar dira, biek ere izugarrizko bizitasuna ematen baitiote auzoari.

Elkartekoek Intxaurrondoko Gastronomia Astea antolatzen laguntzen dute urtero, eta baita Garagardoaren Astea ere.

Danborradari dagokionez, berriz, ibilbide bitxia egiten dute urtero San Sebastian egunean, eta aurten ere ez zuten hutsik egin: *"Intxaurrondotik ateratzen gara* -diosku Iñaki Uranga elkarteko arduradunak-, *eta Parte Zaharrean amaitu ohi dugu. Zenbaitek Caritas-en ibilbidea egiten dugula esaten digute, zahar-etxea bisitatu ondoren Matia zentrora joaten garelako, eta handik itsuen eskolara... buelta ederra ematen dugu Parte Zaharrera heltzeko"*.

Iñaki Uranga umoretsu mintzatu zaigu elkarteari buruz. Bere esanetan, harreman estua dute Intxaurrondoko biztanleekin: *"Intxaurrondo Zaharreko biztanleentzat gure elkartea oso gertukoa da, baina Intxaurrondo Berriko lagunentzat ez hainbeste. Baina jakina, haiek berriak dira eta..."*, diosku erdi serio, erdi txantxetan.



1936ko otsailaren 29an ateratako argazkia. Gutxi falta zen Gerra Zibila hasteko.

Zahar ala berri, Artzak Ortzeok elkarteko ateak intxaurrondotar guztientzat zabalik daude.

Zorroaga
HILETA ZERBITZUAK
GAUZA HAUEK ESKAINTZEN DITUGU:
Hileta kontu guztiak - Hil-kutxen erakusketa eta salmenta
Lore-koroak - Eskela papereak - Hildakoak herri batetik beste batera eramatea; baita atzerritik ere
Debaldeko aparkalekua (Artzai Onaren azpian)
Tanatorioa
Aholkularitza juridikoa
ORDUTEGIA: goizeko 6etatik gaueko 12ak arte
Hondarribia 21 • Tfnoa.: (943) 42 21 29 • Faxa: (943) 42 21 29

Matia kalea 50 • Tfnoa.: (943) 217254
GYM BERRI
• Aerobika
• Emakumezko zein gizonezko muskulazioa
• Borroka-arteak
• Mantenimendua
• Sauna
• Solariuma
• Mugimenduaren lehen urratsak
• Elikadurari buruzko aholkuak
• Haurdun eta ama berrientzoko (bere haurrarekin) aerobika
Ordutegia: goizeko 08.30etatik arratsaldeko 22.00ak arte

SAN CARLOS BORROMEO
• Emakume eta gizonezko jantzigintza eta mihisedenda.
• Bainujantziak eta bikiniak denontzat.
• Donostiako preziorik onenak.
DENDA BERRIA!!! Aita Larroka kalea 12 Tfnoa.: 943-271030
Oiartzun kalea 7 · Tfnoa.: 943-284547